

**HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO JARDUNALDIAK**  
**JORNADAS DE COORDINACIÓN DE DEFENSORES DEL PUEBLO**

2014-09-09 Kulturunea MONTEHERMOSO Centro Cultural 09-09-2014

*Lehendakariaren hitzaldia - Discurso del Lehendakari*

Eusko Legebiltzarraren presidente anderea, herri agintariak, Estatuko Herri Defendatzaileak, UPV/EHU-ren Erretore jaun txit gorena, Arartekoa eta Ombudsman-Arartekoak, jaun andereak, bon dia, bos días, buenos días, egun on guztioi!

Arartekoak hogeita bost urte betetzen ditu eta urte luze hauetan egindako lana eskertuz hasiko naiz gaur Ombudsman-en Koordinaziorako XXIX. Jardunaldi hauetan, UPV/EHU-ren XXIII. Uda-Ikastaroetan.

Arartekoaren erakundeak leiho berri bat ireki die herritarrei eta hogeita bost urte hauetan zehar Arartekoaren erakundea osatu duten eta duzuen guztioi nire aitormena adierazi nahi dizuet bide horri eutsi egin diozuelako.

Arartekoaren bidez, herritarrek erakundearekin zuzeneko harremana izateko aukera irabazi dute. Gauzak diren edo sentitzen duten zein ikusten duten bezala azaltzeko aukera izan dute.

Leiho berri honi esker Administrazioak ere irabazi egin du. Herritarren zerbitzura dagoela gogorarazi dio beti eta horrexegatik kontutan hartu ere.

Egun, Gobernu-jarduera ona, etikoa eta gardena, ezinbesteko erronka da zerbitzu publikoan. Erronka hau gainditzeko zubiak eraikitzen jarraitu behar dugu. Entzuten eta erantzuten jarraitu behar dugu.

Bide horretan ari da Eusko Jaurlaritza, bai Legebiltzarraren aurrean, bete beharrekoari ekinez, baita gizartearen aurrean ere. Bide honetan, eta Eusko Legebiltzarretik sortua, duela hogeita bost urte Arartekoaren Erakundea jaio zen.

Gaur herri exijentzia goreneko unea bizi dugu. Herri kontzientzia gaurkotuta berpiztu egin da, hiritarrek zorrotzago eta gertuagotik jarraitzen dute Erakunde-arduradunen jarduna.

Arartekoa bidaidea izan da Herri kontzientziaren garapenean. Garapen horren laguntzailea izan da, bultzatzailea, zirikatzailea ere, eragilea. Beharbada, horixe da bere lorpen nabarmenena. Onuragarria izan da denontzako hiritarren arreta areagotzea.

Egun, zerbitzu publikoa hobea da, gardenagoa, hurbilagoa.

Nos reunimos con motivo del vigésimo quinto aniversario del Ararteko, una institución capital para nuestro País y también en el contexto de la celebración de las XXIX Jornadas de Coordinación de Defensores del Pueblo en el marco de los XXIII Cursos de Verano de UPV/EHU.

Lo hacemos con la propuesta que ya se ha mencionado de debate de "Las familias y sus necesidades y retos en el actual entorno social y económico: Respuesta de los poderes públicos".

Vivimos momentos de máxima exigencia social. La ciudadanía es más exigente con las personas con responsabilidad pública. El Ararteko es la institución que ha acompañado este proceso, con espíritu garantista y también incisivo. En todo caso, como acicate.

La administración vasca sabe de los parámetros de gobernanza como la transparencia y la rendición de cuentas. El Gobierno Vasco está comprometido en ello. Adecuación de la estructura propia del Gobierno, un exigente Código ético para las y los cargos públicos, con una Ley 1/2014 de código de conducta. Compromiso, también, con el cumplimiento de estándares de Transparencia Internacional.

Creemos en el servicio público. Creemos en la acción política. Vamos a seguir trabajando para recuperar el prestigio del compromiso público. Un compromiso público que es hoy, ante todo, un compromiso con las personas.

En el Gobierno conocemos la sensibilidad y seguimiento que provocan las cuestiones sociales en la institución del Ararteko.

Hace 25 años, junto al Ararteko, se puso en marcha en Euskadi una red de apoyo público a las personas más necesitadas. Una garantía de protección social. Una red que funciona, que nos enorgullece como sociedad solidaria.

Hoy, en este marco y en este contexto, subrayo la consciencia permanente de nuestro espíritu reflejado en el "compromiso con las personas" pero, al mismo tiempo, quiero hacer una apelación a la responsabilidad.

Lo primero es la dignidad de las personas: el trabajo, la ayuda y la atención a las personas. Conscientes de los ámbitos competenciales y de las posibilidades, sabiendo identificar los derechos subjetivos de las ayudas subvencionales en función de los recursos disponibles.

También el control. Debemos mejorar la gestión de las ayudas sociales, entre todos los responsables institucionales, sí, pero no hemos de renunciar a que este País atienda a las personas más necesitadas.

Actitud de mejora permanente en la prestación social en todos los ámbitos de actuación que para todo tipo edades de todo tipo de personas han de abordar las instituciones. Desde la sostenibilidad.

Ofrecer la base de una vida digna. Primar los recursos para que crezcan las oportunidades. Este es el norte que hoy un Gobierno que antepone la “defensa del pueblo”, de los intereses de su pueblo, es la máxima también de nuestro Gobierno.

Hemos sido elegidos no solo para administrar, también para adoptar decisiones políticas. Y la decisión política de este Gobierno es garantizar que los servicios públicos sean elemento fundamental de cohesión social. Es necesario un Pacto social.

Se trata de un reto que, en el caso de la concepción de país, la equidad, la eficiencia y eficacia en las ayudas para promover la natalidad y la conciliación familiar, necesitan una reflexión en el contexto del sostenimiento de nuestro modelo social y tras la garantía de los servicios públicos esenciales.

No podemos llegar a todo como deseamos, y quizás la Administración, en su conjunto, tampoco puede dar respuesta en todo y al tiempo que la institución del Ararteko plantea, pero creo que es justo reivindicar el nivel de desarrollo social en Euskadi, de la mano del impulso en la atención a los derechos de las y de los ciudadanos promovido por la institución del Ararteko.

Jaurlaritzaren norabidea “persona helburu” izateak erakusten du. Hasiera hasieratik esan genuen: “Herri honek ez du inor atzean utziko.” Horregatik bermatu dugu gizarte laguntza. Duela 25 urte gehiago zuten pertsonak laguntzeko sare publiko bat jarri zen martxan gure Herrian.

Sare horrek ondo funtzionatzen du, eta gure Herriaren elkartasuna erakusten du. Gizarte balio hori defendatzen dugu eta horixe defendatuko dugu aurrerantzean ere.

Gaur, ekitaldi honetan, Erakunde ordezkari guztien ardura eskatu nahi dut. Pertsonen duintasuna lehenetsi behar dugu. Behar dutenei laguntza eskaini.

Horrekin batera, kontrola ere bai, noski. Kontrol guztia eta gure eginkizuna hobetzeko jarrera guztia ere bai. Baina, ezer baino lehen, pertsonen duintasuna. Hori da 25 urte hauetan Herri bezala harro egoteko dugun arrazoia. Nola nahi ere, gaur egungo eta etorkizunean diren eta izango diren beharriaz eutsi eta erantzun ahal izateko Gizarte-Akordio baten aldarrikapena egiten dut.

"Familiak eta beraien beharrak eta erronkak oraingo gizarte eta ekonomia egoeran: botere publikoen erantzuna" gaiaren lelopean, Herri-erronka bat dugu herri hazkundeaz eta familien politikekiko arretaren alorrean eraginkortasuna aztertu beharrekoan, gizarte ereduari, eutsi egin ahal izateaz batera, oinarrizko zerbitzu publikoak mantentzeko haratago joan nahi badugu.

Jaurlaritzak gardentasunaren eta kontuak ematearen aldeko apustu sendoa egin du. Politikan sinesten dugu. Zerbitzu publikoan sinesten dugu. Horregatik, konpromiso publikoaren izen ona berreskuratzeko lanean jarraituko dugu.

Horretan jarraituko dugu, herritarren bizitza errazteko eta hobetzeko baita, ahal den neurrian, Arartekoaren erakundeak egindako iradokizunak kontutan hartuz, oraingoak ere, oso garrantzitsuak izango direlako.

Mila esker guztioi, eskerrik asko, muchas gracias a todas y a todos.